

## UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisas anisen honek, Udaltzaren Araudi Organikoaren 90. eta 91. artikuluen babesean, **ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZARI buruzko honako ARAU PROPOSAMEN** hau aurkeztu dut, Udaltzak osoko bilkuran landu aztertzeko:.

Ohiko bizilekua ez izateagatiko errekgua: errekgua % 25 izango litzateke. Espedienteko txostenaren arabera, 153.500 €-ko diru sarrerak aurreikusten dituzte.

### JUSTIFIKAZIOA

Zerga politikak ez du dirua biltzeko helburu hutsa izan behar. Erakunde publikoek tresna hori erabili behar dute errealitatea beren eskumenen esparruan aldatzeko, lehentasun politiko batzuen arabera. Zalantzarik gabe, zerga politika da gizartea eraldatzeko daukagun tresnarik handiena.

2020rako ordenantza fiskalak aldatzeko eztabaidetan argudiatu zutenez, jada OHZn jenderik gabeko etxebizitzaren zerga gehitzeak (%25 izatetik %50 izatera igaro zen) Donostiako alokairuko etxebizitzaren parkean etxebizitza berri asko sartzen lagunduko zuen. Donostian jenderik gabe dauden etxebizitzaren parkea 155 baino ez zen handitu.

2021ean, beste % 50 handitu zen, % 100era iritsi arte, eta jenderik gabeko etxebizitzaren kopurua ia berdina da.

Beraz, uste dugu neurri hori alferrikakoa dela, dirua biltzeko asmo hutsa dueña, eta ez duela eraginik hiri honek aspalditik duen etxebizitza arazoa konpontzeko ahaleginean, udal Gobernu bakar batek ere ezin izan baitu geldiarazi.

Donostian, 2021eko abuztuaren 3an

Borja Corominas Fisas,  
Udal Talde Popularraren bozeramailea.